

IRAGARKIAK

Beste iragarki ofizial batzuk

INDUSTRIA, TRANTSIZIO ENERGETIKO ETA JASANGARRITASUN SAILA

4843

IRAGARKIA, 2024ko urriaren 9koa, Proiektu Estrategikoen eta Industria Administrazioaren zuzendariarena, Iruña Oka (Araba) udalerrian «2,9 MWn/3,471 MWp-ko Arganzón instalazio fotovoltaikoa» egiteko proiektua jendaurrean jartzeko dena.

Sektore Elektrikoari buruzko abenduaren 26ko 24/2013 Legearen IX. tituluan eta Energia elektrikoaren ekoizteko, garraiatzeko eta banatzeko instalazioen administrazio-baimenaren prozedurak arautzen dituen martxoaren 31ko 48/2020 Dekretuaren 10. artikuluan aurreikusitako ondorioetarako, jendaurrean jartzen da proiektu hau:

– Eskatzailea: Fotovoltaica Comunion II, S.L.; IFK: B05312525; helbide soziala: Sotelo 2 Behea, 49006 Zamora.

– Eskaera: aldez aurreko administrazio-baimena eta eraikuntza-baimena.

– Xedea: salmentarako energia elektrikoaren sortzea teknologia fotovoltaikoaren bidez.

– Erreferentzia: 01 GEY 202200006: «2,9 MWn/3,471 MWp-ko Arganzón instalazio fotovoltaikoa».

– Instalazioaren ezaugarriak:

a) Lurrean dagoen planta fotovoltaikoa, 725 Wp-ko potentziadun 4.788 panel fotovoltaikok eta 322,22 KW-ko 9 inbertsorek osatua.

b) 3.520 kVA-ko transformazio-zentro 1, hau da, transformadorea eta ETko gelaxkak dituen.

c) Hustuketa: LSMT eta LAMT, euskarri berri baten bidez aire-lurpeko bihurketa egiteko, OCR teleaginte bateraino 1110-266131 euskarrian (OCR-a proiektu honetatik kanpo dago).

d) Konexio-puntua: 1110-266131 euskarria, SET Jundizera doana, I-DE Redes Eléctricas SAU-ren jabetzakoa.

e) Instalazioaren potentzia: 2,9 MWn.

– Instalazio fotovoltaikoaren kokapena: 1. poligonoa, 263A, 263B eta 264 partzelak, Iruña Oka (Araba).

– Aurrekontua: 1.687.388,07 euro.

Guztiak jakin dezaten ematen da argitara azaldutakoa, proiektua Arabako Industria Administrazioaren Lurralde Ordezkaritzan (Samaniego kalea 2, Vitoria-Gasteiz) edo Interneteko www.euskadi.eus webgunean (Energia eta Meategiak/Energia ataleko Proiektuen Jendaurreko Informazioaren atalean: <https://www.euskadi.eus/eusko-jaurklaritza/energia-meategiak/hasiera/>)

2024ko urriaren 22a, astearta

aztertu ahal izan dadin eta egoki iritzitako alegazioak aurkeztea hogeit hamar eguneko epean, iragarki hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko urriaren 9a.

Arabako Industria Administrazioako lurralde-ordezkaria ez dagoenez, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen otsailaren 23ko 68/2021 Dekretuaren lehenengo xedapen gehigarriaren e) apartatuaren arabera.

Proiektu Estrategikoen eta Industria Administrazioaren zuzendaria,
ZIGOR URQUIAGA URQUIZA.